




Azalera handietako salmentak ia ez dira hazi

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea




Iturria: Eustat.

Maiatzean, azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %0,1 baino ez ziren hazi urte arteko tasan. Hala eta guztiz ere, azken urteetako mailarik handiena eskuratu du. Alde batetik, elikagaien salmenta %4,7 murriztu zen, baina gainerako produktuen igoera handiarekin (%10,7) konpentsatuta geratu zen.

Txikizkako merkataritzak jaitsiera tasa leundu du

Txikizkako merkataritza EAEn
Urte bakoitzeko maiatza. Indizea




Iturria: INE.

INEk Euskadiko txikizkako merkataritzari buruzko hileko inkestak argitaratu du, eta bertan seinatzen da salmentak %1,2 murriztu zirela maiatzean, aurreko urtearen aldean. Ondoz ondoko sei hilabetez aldakuntza tasa negatiboak jaso dira, baina maiatzeakoa seietatik txikiena izan da. Orobat, sektoreko enplegua %1,7 gehitu da.



Ekainean KPI indizea %10,2ra igo da

KPI indizea estatuan
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Ekainean, INEk estatuarentzat argitaratu duen KPIaren aurrerapenak urte arteko tasa %10,2ra eraman du. Igoera horren atzean dauden arrazoi nagusiak erregaien, elikagaien eta hotel eta jatetxeen garestitzea dira. Azken elementu hori azpiko inflazioa %5,5era igo izanaren ardura-dunetako bat da.

Sentimendu ekonomikoak okerrera egin du ekainean

Euroguneko sentimendu ekonomikoa
Indizea



Iturria: Europako Batzordea.

Europako Batzordeak argitaratutako informazioaren arabera, euroaren eremuko sentimendu ekonomikoak okerrera egin du berriro. Hala ere, irakurketa positiboa da oraindik 100 balioaren gainetik, 2000. urteaz geroztik batez besteko sentimendua markatzen duen langaren gainetik, dagoela. Beraz, oraindik nolabaiteko baikortasuna dago eremuan.